

- **HIRI-ONDASUNEN KATASTRO-BALIOAK:** Etxebizitza bat baino gehiago izanez gero, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kopia aurkeztu beharko da, bizikidetzaren unitateko kideen jabetza guztia, hain zuzen ere.
- (\*) **DIBORTZIOA, BANANTZEA, ERREGISTRATUTAKO IZATEZKO BIKOTEA DESEGITEA EDO ANTZEKO EGOEREN KASUAN:** Hitzarmen arautzaileak, udalak eginiko bizikidetzaren ziurtagiria, pentsioen egiaztagiri eguneratuak eta, hala badagokio, aitaren edo amaren ezkontidearen edo bikotekidearen diru-sarrerak.
- **AITONA-AMONAK:** Bizikidetzaren ziurtagiria, udalak emandakoa.
- (\*) **DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK:** Desgaitasun-maila aitortzen dion egiaztagiria.
- (\*) **HARRERA-FAMILIETAN DAUDEN ADINGABEAK:** Harrerari buruzko foru-aginduaren fotokopia eta dagokion aldundiak erabakitako harrerako baldintzen fotokopia.
- **NEBA-ARREBA UNIBERTSITARIOA:** Matrikulatuta dagoela egiaztatzea eta errentamendu-kontratua aurkeztu, hala dagokionean.
- **DIRU-SARRERA SALBUETSIAK:** Desgaitasun-pentsioen ziurtagiriak, ezintasun iraunkor absolutuarena edo baliaezintasun handiarena, zurtasun-pentsioarena, kaleratzearengatik kalte-ordainena edo bestelako gizarte-laguntzena (DSBE, gizarte-larrialdietarako laguntzak, etab).
- **ERRENTA-AITORPENA EGITEN EZ BADA:** Jasotako diru-sarrerak, bizitzeko baliabideak edo laguntzak justifikatu beharko dira agiri bidez.
- **ZERGA-EGOITZA EAE-TIK KANPO IZANEZ GERO,** horiez gain, honako hauek aurkeztu beharko dira: Zerga-aitorpena egin duten kide konputagarrien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortze-likidazioaren kopia osoa. Salbuetsita dauden errenten eta pentsioen ziurtagiriak, hala nola Gizarte Segurantzaren pentsioenak eta diru-sarrerak bermatzeko errentarenak edo/eta etxebizitzarako prestazio osagarriarenak. Lan-etekinen ziurtagiria (10T), 2018an PFEZaren aitortze-likidazioa egin ez bada. Familia ugaria: txartela
- **BESTELAKOAK:** Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak justifikatzeko egoki irizitako beste edozein dokumentu, hala nola kaleratze-likidazioak, enplegu-erregulazioko espedienteak, behar bezala erregistratutako dohaintzak eta laguntzak, etab.

(\*) Aurreko ikasturteko deialdian aurkeztu bazen, ez da berriro aurkeztu behar.

### **DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoetarako**

(Erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketa, arte plastikoetako eta diseinuko irakaskuntzak, kirol-irakaskuntzak eta musika eta dantzako profesionalak).

- **FAMILIAREN EGOITZATIK KANPO BIZIZ GERO:** Errentamendu-kontratua.
- **INDEPENDENTZIA-EGOERAK:** errolda-ziurtagiria (gurasoenaren desberdina) edo umezurtz-ziurtagiria eta eskuragarri dituen bizitzeko baliabideak.

Ikasleak genero-indarkeria jasan duten bizikidetzaren unitatekoak badira, eta aipatutako egoera justifikatzeko urruntzeko agindu judiziala, kondena-epai judiziala edo oinarritzko gizarte-zerbitzuen txostena aurkezten bada, betekizun akademikoak bete barik ere eman egingo dira laguntzak.